

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Banako laguntza ekonomikoen 2022/2023ko deialdi publikoa, desgaitasun egoera aitortuta duten pertsonentzat eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeentzat

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE) Administrazio Kontseiluak, 2022ko azaroaren 14ko bilkuran, laguntzen deialdi hau onestea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdia arautuko duten.

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1. Deialdi honen helburua da desgaitasun egoera aitortuta duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeei banako laguntza ekonomikoak ematea 2022. eta 2023. urteetarako, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileekin bat etorritik. Deialdi honetan sartuko dira aurreko deialdian, hain zuzen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 16ko bilkuran onetsi zuen deialdian, kreditua agortu zelako ukatu ziren laguntza eskaerak.

2. Laguntza hauen helburua da hartzaileen bizi kalitatea hobetzea, haien desgaitasun egoerak sortutako premiei erantzutea eta haien autonomia erraztea. Horretarako, laguntza ekonomikoa emango da, laguntzen hartzaileek laguntza produkturen bat erosteko, ohiko etxebizitzan edo ibilgailu pribatuan egin beharreko egokitzapenak gauzatzeko edo laguntza espezializatua jasotzeko egin behar dituzten gastuak osorik edo zati batean konpentsatzeko helburuz.

Bigarrena. Betekizunak

1. Funts publikoak eskuratzen dituena izango da dirulaguntzaren onuraduna, eta berak gauzatu behar du dirulaguntza eskuratzeko arrazoitzat aurkeztu duen jarduera edo bera egon behar da emakida eskuratzea bidezko egiten duen egoeran.

Adingabeentzako laguntzei dagokienez, aita, ama edo, erakunde publiko eskudunaren aurrean formalizatutako tutoretza zein harrera dela-eta, legezko arduradunak izango dira laguntzen onuradunak, betiere adingabearekin bizi badira.

2. Gizarte Politiken Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak desgaitasuna duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei autonomia errazteko banako laguntzak emateko oinarri orokorrak onartzen dituen uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako baldintzez gain, laguntza eskatzeko unean honako baldintza hauek betetzen dituztenak ere izan daitezke laguntzen onuradunak:

a) Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan benetako bizilekua izatea eta erroldatuta egotea, gutxienez, urtebetez, etenik gabe. Epe hori eskaera egin baino lehenagokoa izan beharko da, eta onuradunek erroldatuta jarraitu beharko dute espedientea izapidetzen den bitartean. Bestela, Trebiñuko barrendegiari buruzko esparru-akordioa garatzeko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, adinekoen, desgaitasunen bat duten pertsonen eta mendekotasunik duten pertsonen gizarteratzeari eta haientzako gizarte arretari dagokienez, Trebiñuko barrendegiko edozein udalerritan erroldatuta egotea, gutxienez, urtebetez, etenik gabe, eskaera egin baino lehen, eta erroldatuta jarraitzea espedientea izapidetzen den bitartean.

b) Desgaitasun baldintza hauek betetzea:

– Oro har, 65 urte bete aurretik, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortuta izatea, eskatzen den laguntzaren bidez haren ondorioak arintzea helburu duen mentsari dagokionez.

Desgaitasun egoeraren aitortpena organo eskudunaren balorazioaren bidez lortu behar da, hura gauzatu zen unean indarrean zegoen desgaitasun maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko baremoa aplikatuz.

– Berariaz, 2. eranskinean jasota daudenak: Diruz lagun daitezkeen laguntzen katalogoa, berariazko betekizunak eta diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

– Garapen nahasmenduak dituzten edo horiek pairatzeko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei arreta espezializatua emateko laguntzei dagokienez, ez da beharrezkoa izango desgaitasun baldintza betetzea.

c) Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzei dagokienez, Autonomia Pertsonaleko Zentroaren Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuaren orientazioko txosten teknikoa, eskatzen den laguntzari buruzkoa, lortuta izatea.

Txostenak ezin izango du 3 urtetik gorako antzinasuna izan, eta balioa galduko du desgaitasunaren aitortpena eta kalifikazioa berrikusi edo aldatu bada edo desgaitasun ziurtagiriak indarra galdu badu.

Aipaturiko txostena eskuratzeko betebeharretik salbuetsita daude 2. eranskineko epigrafe hauetan jasotako produktuen eskuratzekoak: 4.a.1; 4.a.2; 4.a.2.1; 4.b.1; 4.b.2; 5.f. y 6.

d) Ohiko etxebizitzako irisgarritasunerako laguntzen kasuan, dena delako etxebizitza izan behar da laguntzaren onuradunaren ohiko bizilekua eta haren bizikidetzaren unitatearen egoitza. Gainera, baldintza hauetako bat bete beharko da:

– Onuradunak etxebizitza horren, gutxienez, ehuneko 50aren jabea edo gozameduna izan behar du.

– Jabetzaren ehuneko 50 eskatzailearekin, gutxienez, eskaera egin baino bi urte lehenago bizi izan den lehen mailako senide batena, ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena izatea. Inguruabar hori errola-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Salbuespen gisa, laguntza hau eman ahalko zaio eroldan bi urtez egon izana egiaztatzeko modurik izan ez arren, gutxienez, ehuneko 75eko desgaitasun aitortpena badu, gerora sortutako kausengatik edo endekapenezko gaixotasun bategatik.

3. 32/2021 Foru Dekretuak, uztailaren 20koak, desgaitasunen bat duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeei autonomia errazteko banako laguntzen oinarri orokorrak arautzen dituenak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko gainditu ezin den gehieneko diruzko sarreraren muga ezarri da 2022an, deialdi honen 1. eranskinean zehazten denari jarraiki.

4. 2. atalean ezarritako baldintzez gain, laguntza hauen eskatzaileak 2. eranskinean jasotako katalogoan laguntza-mota bakoitzeko adierazi diren betekizun espezifikoak bete beharko ditu.

Hirugarrena. Aurrekontua eta gehieneko zenbateko osoa

3.1. Deialdi publiko honetan araututako dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 81203. G/231813/48000816 "Autonomia Pertsonalerako Laguntzen Programa" partidaren kargura ordainduko dira (110.000,00 euro) eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2023ko ekitaldirako aurrekontuan zuzkitzen den aurrekontu partidaren kargura (400.000,00 euro).

3.2. 2023ko partidaren kontura dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa zen kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntzaren ebazpena emateko unean.

3.3. Laguntzak emateko eskumena duen organoak uneko deialdirako onetsitako zenbatekoaren ehuneko 30era arteko zuzkidura gehigarria onetsi ahal izango du.

Laugarrena. Emakida araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askeko araubidean emango dira; hala, funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztenen artean, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea

5.1. Deialdi honen xede diren laguntzak emateko prozedura onuradunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak, tutoretza, legezko zaintza edo harrera duenak eskatuta hasiko da, eta deialdi honen 029 eranskinean ageri den eredu normalizatuan formalizatuko da.

Eskabideak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/registro-electronico-comun-ifbs>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzeko dutenak.

5.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan hasiko da eta 2023ko irailaren 15ean amaituko da, azken egun hori ere kontuan hartuta.

5.3. Deialdi honetako 2. Eranskinean jasotako laguntza mota bakoitzerako eskaera bana aurkeztuko da: Diruz lagundu daitezkeen laguntzen katalogoa, betekizun espezifikoak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

5.4. Laguntza espezializatutako laguntzei dagokienez (deialdi honetako 2. eranskinaren 6. atalean daude jasota), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Balorazio Unitate Teknikoko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren preskripzio bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da eredu normalizatuan, eta ez da beharrezkoa izango beste dokumentaziorik aurkeztea bigarren eskabidean eta hurrengoetan.

5.5. Deialdi honen seigarren oinarriko 2. puntuan jasotako kasuetan, beste eskaera bat aurkeztu behar da. Horrekin batera, bosgarren oinarri honetako hurrengo puntuetan jasota dauden agirietatik 2022ko deialdian aurkeztu ez direnak aurkeztuko dira.

5.6. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran onetsi zuen 2022ko deialdian aurrekontu kreditua agortzeagatik ukatu ziren eskaerak deialdi honen seigarren oinarriaren 1. puntuan jasota daude, ofizios sartuko dira deialdi honetan, 2022ko deialdian aurkeztu ziren hurrenkera berean, berriro ere eskaerarik aurkeztu beharrik gabe, baldin eta 2022ko deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta, horrez gain, lehentasuna izango dute aurkeztutako eskaeren aldean.

5.7. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen eta haren legezko ordezkariaren NAN, AIZ edo Europar Batasuneko Herritarren Erregistroaren fotokopia. Halakorik ez duten adingabeei gagozkiela, gurasoen edo legezko zaintza duenaren agiria eta adingabea agertzen den familia liburuaren fotokopia aurkeztuko dira. Hala badagokio, ordezkariak egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

b) 012 inprimakia, familia unitateko kide guztiek sinatuta. Agiri horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak baimena izango du datu pertsonalak bildu, erabili eta/edo transmititzeko, prestazioak, laguntzak eta gizarte zerbitzuak lortu, jaso eta horiei eusteko legez ezarritako betekizunei dagokienez.

c) 013 inprimakia, banku helbideratzeari buruzkoa, banku-erakundeak behar bezala sinatu eta zigilatuta, hornitzaileari ordainketa zuzena berariaz eskatzen zaion kasuetan izan ezik.

d) Eskatutako laguntzaren xede den ekintzaren, laguntza produktuaren edo zerbitzuaren kostuaren proformako aurrekontua edo faktura; bi agiri izan beharko dira 2.000,00 euroko edo gehiagoko kostua dutenean, eta hiru agiri, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000,00 eurotik gorakoa denean, obrak egiteko, eta 15.000,00 eurotik gorakoa denean, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko (Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikulua arabera).

Bi edo hiru aurrekontu edo proformako faktura aurkezteko betebeharra salbuetsi ahaliko da eskatzaileak hala eskatzen badu, baldin eta laguntzaren xede den produktua berezia bada eta zerbitzua ematen duen beste hornitzaile edo erakunderik ez badago.

Aurrekontuan, gutxienez, ondoko datuak jaso beharko dira: enpresa hornitzailearen identifikazioa, aurrekontuaren data, eskatzailearen datuak, eskatutako laguntza produktuaren ezauzgarrien deskribapen zehatza edo egindako ekintza/tratamenduarena (marka, eredia, kodeen arabera xehakapena, hala badagokio...).

Eskabidea aurkeztu aurretik, zerbitzuak deialdiaren epearen barruan eskuratu edo ordaindu badira, fakturaren eta ordainketaren egiaztagirien jatorrizkoak aurkeztu beharko dira.

e) Etxebizitza egokitzeko laguntzen eskaerei dagokienez:

– Jabetza Erregistroaren ohar soila: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios eskatuko dio Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailari etxebizitzaren jabetza egiaztatze informazioa. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta GOFEK egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

– Eraikinaren elementu komunetan egindako obrei dagokienez, jabeakideen erkidegoaren akta, jabetza horizontalari buruzko araudiak zehaztuta edo, hala badagokio, epai judizial irmoak ebatzita, onuradunaren partaidetza kuota jasotzen duena.

– Laguntza faktura bidez eskatuz gero, obraren amaiera ziurtagiria, organo eskudunak ontzat emanda, betiere laguntzak hala eskatzen badu.

– Onuraduna etxebizitzaren jabea ez bada, familia liburua edo izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiria eta erroldatze kolektiboaren ziurtagiri historikoa aurkeztuko dira.

f) Motordun ibilgailuetan egindako egokitzearen laguntza eskabideei dagokienez:

– Onuradunaren indarreko gidabaimenaren kopia, laguntzaren xedea gidatzeko egokitzapena bada.

– Eskaeraren xede den ibilgailuaren zirkulazio baimena.

g) Izapidetze elektronikoa aukeratuz gero, eskabidearen dokumentazioarekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, bertan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoa direla eta, hala eskatzen zaionean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderen esku jarriko dela adierazten duena.

h) 5.c eta 5.h epigrafeetan barne hartzen diren produktuak konpontzeko laguntza eskaeren kasuan, konponketa hori eskatzen den produktu nagusiaren faktura eskatuko da.

5.8. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Foru Ogasunari onuradunak beraren zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztatzea, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 800,00 eurotik beherakoa bada eta urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatutako otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatze beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera. Onuradunak zergak beste probintzia edo autonomia erkidego batean ordaintzen baditu, bere bizilekuari dagokion Ogasunaren egiaztatzea aurkeztu beharko du. 800,00 euroko zenbatekoa zehazteko, onuradun bakoitzak egindako eskaera guztiak aintzat hartuko dira.

5.9 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Gizarte Segurantzari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztatzea, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 3.000,00 eurotik beherakoa bada eta urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatutako otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatze beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera. 3.000,00 euroko zenbatekoa zehazteko, onuradun bakoitzak egindako eskaera guztiak aintzat hartuko dira.

5.10. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kasu berdinetan ezarritako laguntzen aldean lagungarritzat jotzen diren laguntzei dagokienez, eskabidearekin batera, erakunde horiek emandako ebazpena aurkeztu beharko da. Onuradunak beste diru-laguntza horiek jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez baditu eta eskaerarik egin ez badu, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du, eta, bertan, inguruabar hori, dena delako deialdia eta betetzen ez den betekizuna adierazi beharko ditu. Hori guztia teknikari eskudunek egiaztatuko dute, eta ondorio horretarako txostena egingo dute.

Seigarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

6.1. Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzen dira 2. eranskinean jasotakoak: "Diruz lagun daitezkeen laguntzen katalogoa, berariazko betekizunak eta diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa", baldin eta 2022ko irailaren 16tik 2023ko abenduaren 30era arteko aldiari eskuratu edo gauzatu badira eta aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso ez badute.

Arreta espezializatuko gastuen kasuan, lagungarriak izango dira 2022ko irailaren 16tik 2023ko azaroaren 30era arteko aldiaren barruan egindakoak, adierazitako egun bietan barne, aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso ez badute.

GOFeren Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran onetsi zuen 2022ko deialdian aurrekontu kreditua agortzeagatik ukatu ziren eskaerei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira igaro den 2022ko deialdian halakotzat jasota daudenak, eta deialdi horretan islatutakoak izango dira diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak.

6.2. Halaber, deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen gastutzat ere jotzen dira 2. eranskinean jasotakoak: "Diruz lagundu daitezkeen laguntzen katalogoa, betekizun espezifikoak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa", eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kasu haietarako ezarritakoen aldean subsidiariorik hartzen direnak, 2022ko deialdian eskatu badira, 2021ko irailaren 16tik 2022ko abenduaren 30era bitartean egin badira, biak barne, eta eskaera ukatzeko edo uko egiteko ebazpena jaso badute, beste erakunde publiko edo pribatu horiek egindako nahitaezko ebazpena ez izateagatik. Dena den, aipatutako erakundeei egindako eskaera, 2022ko deialdian eskaera aurkeztu aurretik egin behar izan zen.

6.3. Araudi honen ondorioetarako, honakoak ez dira diruz lagungarriak izango, honako hauek:

- Laguntza produktuak instalatzeko behar diren artikulak.
- Laguntza produktuak konbinatzeaz lortutako konponbideak, araudi honetan banan-banan sailkatuta badaude.

- Botikak.
- Osasun arloko profesionalek soilik erabiltzen dituzten tresnak, osasun produktuak eta materialak, eta material ortoprotesikoak.
- Konponbide ez teknikoak, hala nola laguntza pertsonala, itsu txakurrak edo ezpain irakurketa.
- Ezarritako gailuak, esku-hartzeak edo produktuak, horien erabilera bidezkotzen duen ebidentzia zientifikorik ez badago, eta aipaturikoei loturiko kostuak, edo CIE-10 Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean jasota ez dauden patologien ziozko desgaitasuna arintzea helburu dutenak.
- Katalogoan jaso gabeko produktuak, eskatzailearentzat onuragarriak edo erraztaileak izan arren, jende ororentzat izaera eta erabilera bera dutenak eta berariazkoak ez direnak.
- Lanaren edo prestakuntza zentroaren ingurunea aintzat harturik, berariaz egokitutako esku hartze edo laguntza produktu guztiak, eta onuradunari arreta ematen dioten laguntza zentroetako (egoitzetako edo eguneko arretako zentroetako) ekipamendua osatzen duten laguntza produktuak.

Zazpigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea eta haren mugak

7.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa Gizarte Politiken Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak desgaitasuna duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0-6 urte bitarteko adingabeei autonomia errazteko banako laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onartzen dituen foru dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da.

7.2. Aurreko paragrafoan esandako foru dekretuaren 23.3 artikulua xedatzen duenari jarraituz, oinarri hauen 2. eranskinean zehazten da laguntza mota bakoitzean emango den gehieneko zenbatekoa. Gehieneko prezioa ezarri ez bada, eman beharreko gehieneko kopuruek ezin izango dute inola ere gainditu merkatuko batez besteko prezioa eskatutakoaren balioak diren produktuei dagokienez. GOFEn Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran onetsi zuen 2022ko deialdian aurrekontu kreditua agortzeagatik ukatu ziren eskaerei dagokienez, eman beharreko gehieneko zenbatekoak 2022ko aurreko deialdian adierazitakoak izango dira.

7.3. Banako laguntzak eskuratzeko gainditu ezin diren familia unitatearen muga ekonomikoak eta familia unitatearen errentaren arabera eman beharreko zenbatekoaren haztapena ez zaizkie aplikatuko deialdi honen 2. eranskineko 6. atalean ageri diren laguntzei.

7.4. Epigrafe hauetan jasotako laguntzetan jasotzen diren dirulaguntzak direla eta: 2. eranskineko 1, 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c, eman daitekeen gehieneko zenbatekoa diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontuaren balioaren arabera kalkulatu da, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek diruz lagundutako zenbatekoak deskontatu ondoren.

7.5. Eskatzen den jarduketa edo produktuaz denaz bezainbatean, aurrekontu bat baino gehiago aurkeztu behar izanez gero, aurrekontu merkeenean jasotako zenbatekoa hartuko da erreferentziatzat dirulaguntza kalkulatzeko.

7.6. uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 23.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, banaka eskatzen den laguntzaren edo ekintzaren aurrekontua hogeita hamar (20,00) eurokoa edo handik gorakoa izan beharko da.

7.7. Etxebizitzaren irisgarritasuna helburu duten laguntzei dagokienez:

- Onuradunaren muga funtzionalak konpentsatzeko partidak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ohiko birgaitze edo eraberritzea dakartenak baztertuko dira.
- Aurreko idatz zatian diruz lagundu daitezkeen partidatzat jo direnak egikaritze unitatetzat hartuko dira diruz laguntzeko moduko gehieneko aurrekontua 2. eranskineko 1.a eta 1.b idatz zatietan adierazitako moduluen bidez kalkulatzeko direnean.

Zortzigarrena. Familia unitatea

8.1. Araudi honetan ezartzen denaren ondorioetarako, hauexek dira familia unitateak:

a) Laguntzaren onuraduna adinduna denean, familia unitateko kideztat hauek hartuko dira:

- Laguntzaren onuraduna.
- Bere ezkontidea, legez bananduta ez badago, edo izatezko bikoteko beste kidea.
- Seme-alaba adingabeak, adoptatuak eta familia harreran daudenak barne. Ez dira unitateko kideztat joko gurasoekin bizi ez diren seme-alaba adingabeak.
- Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adindunak, baldin eta, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren indarreko araudiaren arabera, onuradunaren aitortzearen bidez aplikatzeko eskubidea sortzen badute.

– Gurasoak, baldin eta onuradunak, PFEZren indarreko araudiaren arabera, aitortzearen ondorengo ahaideen kategoria aplikatzeko eskubidea sortzen badie.

– Anai-arreba adingabeak, onuraduna bere gurasoekin bizi bada edo haiek ekonomikoki onuradunaren mende badaude. Ez dira unitateko kideztat joko gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren seme-alaba adingabeak.

b) Onuraduna adingabea bada:

- Laguntzaren onuraduna.
- Aurreko ahaideak, baldin eta haien errenta aitortzearen ondorengo ahaideen kategoria aplikatzeko eskubidea sor dezake.
- Anai-arreba adingabeak. Ez dira familia unitateko kideztat joko gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren seme-alaba adingabeak.
- Prestazioaren onuradunarekin bizi diren anai-arreba adindunak, baldin eta gorakoari edo onuradunaren zaintza eta jagoletza duenari pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzearen bidez aplikatzeko eskubidea ematen badiote indarreko araudiaren arabera

8.2. 1. eranskinean jasotzen diren diruzko sarreraren mugak ezartzearen ondorioetarako, onuradunaz gain, ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen beste pertsona bat bizi deneko familia unitateetan, kide bat gehiago dutela ulertuko da.

Bederatzigarrena. Errentak edo sarrerak eta ondarea zenbatzea

9.1. Familia unitatearen sarrerak zehazte aldera, errenta edo diru sarrera konputagarritzat hartuko dira lanetik, kapitaletik eta jaso daitezkeen beste guztietatik urtero dituen etekinak eta eskubideak.

9.2. Etekinak eta eskubideak balioesteko, erreferentziatzen hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa.

9.2.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortzearen bidezko deialdi bakoitzaren aurreko ekitaldian aurkeztu duten pertsonen dagokienez, honako kontzeptu hauen batura hartuko da sarreratzat: Lanaren etekin osoak, kapital higiezinaren etekin osoak, kapital higigarriaren etekinen zenbateko osoa, ondare irabazi garbiak, lanbide, enpresa, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekin garbia eta egotzitako lan errenta salbuetsien guztizkoa. Deialdi hau argitaratzen den egunean itxita dagoen azken ekitaldian aitortutako datuak hartuko dira kontuan.

Baliaezintasun handiagatik edo antzeko kontzeptu batengatik pentsioa jasotzen bada, hirugarren pertsona bati laguntzeko ehuneko 50eko osagarria ez da kontuan hartuko familia unitatearen sarreraren guztirako zenbatekoan. Horren ildotik, horrelako pentsioen bat jasotzen dutenek horren frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko eta laguntza horren arabera kalkulatzeko.

9.2.2. Onuradunak PFEZaren aitortpena aurkezteko betebeharrak ez duenean, artikuluko honetako 2.1. apartatuan ageri diren kontzeptuetan egotzitako sarrerak aintzat hartuko dira.

9.2.3. Ohiko etxebizitza gorabehera, benetako etekinik sortzen ez duen ondasun higiezin jabe direnei ondasun horien katastroko balioaren ehuneko 3ren balioidea den zenbatekoa egotziko zaie, dagokien ehunekoan.

9.4. Aurreko ataletan aipatu ez diren ondasunen eta eskubideen etekinak edo etekinik sor dezaketenak ere egotziko dira.

Hamargarrena. Prozeduraren antolamendua eta izapidetzea

10.1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak dauka prozedura antolatzeko eta izapidetzeko eskumena, eta hark igorriko dio ebazpen proposamena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpena emateko eskumena daukan organoari.

10.2. Organo horrek ofizioz egingo ditu eskatzaileek aurkeztutako datuak argitzeko, zehazteko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

10.3. Jasotzen diren eskaera guztiak aztertzeko, batzorde teknikoa eratuko da, honela osatua: Pertsona Desgaituen Arloko zuzendariorde teknikoa, Balorazio Atal Teknikoaren arduraduna, Autonomia Pertsonaleko Zentroaren arduraduna, arloko gizarte koordinatzailea, bai eta zuzendariordetzak izendatzen dituen langileak. Batzorde hori arduratuko da txostenetan jasotako proposamenak ebaluatzeaz, aurretiaz, aipatutako arloko zuzendariorde teknikoak izendatu dituen Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko teknikariek sinatu dituztela, eta zuzendariordetzari jakinarazteaz.

Hamaikagarrena. Eskaerak ebaztea

11.1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari dagokio, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 25. artikuluko xedatutakoari jarraiki, deialdi honen babesean izapidetutako espedienteak ebazteko eskumena.

Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek, gutxienez, adierazi beharko ditu:

- Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.
- Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa, laguntzaren helburua eta ordaintzeko era.

Produktu berreskuragarri gisa kalifikatutako produktu bat erosteko laguntza emanez gero, adierazi beharko da, hala badagokio, uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren baldintzak bete behar direla, diruz lagundutako produktua itzuli beharri eta ez-betetzearen ondorioei dagokienez.

Ebazpena, gehienez ere, hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Ondorio horretarako, ez da zenbatuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badagozkie.

Aurreko idatz zatian aipatu den aldi berriazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezeztatzen hartuko da. Nolanahi ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena eman beharko du.

11.2. Ez dira onuraduntzat hartuko, ez dirulaguntza onartzeko ebazpenaren aurretik hil diren laguntza eskatzaileak, ez eta haien ondorengoak ere. Halako kasuetan, prozedura amaitzeko ebazpena emango da, halaberrezko arrazoiengatik ezin delako jarraitu.

Onuraduna dirulaguntza emateko ebazpena eman eta gastua eskuratu ondotik hiltzen bada, haren legezko ondorengoei egokituko zaie dirulaguntza jasotzeko eskubidea, sorrarazitako eta jaso gabeko prestazio gisa; horretarako, eskaera egokia aurkeztu beharko dute.

Onuraduna dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren hiltzen bada, eta gasturik ez bada egon, emandako ebazpena eraginik gabe geratuko da, emandako laguntza ezin delako bideratu ezarritako xederako, eta horrenbestez, deialdiaren xedea ez delako betetzen..

11.3. Ebazpena errekurritu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121-126. artikuluek xedatutakoaren arabera.

Errekurtsorik jarri bada, horretarako egindako txosten teknikoak funtsezko aldeak baditu errekurritutako ebazpenari loturik egin den txosteneko proposamenaren aldean, balorazio batzordeak horri buruzko txostena egingo du.

Hamabigarrena. Ordaintzeko era eta justifikazioa

12.1 Emandako zenbatekoa ordaindu aurretik justifikatu beharko da, diruz lagundutako gastuei dagokienez, enpresa hornitzaileak jaulkitako faktura aurkeztuta eta horren ordainketa osoa egiaztatuta, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 24. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Ibilgailuak egokitzeko laguntzei dagokienez, fakturaz eta ordainagiriaz gain, Ibilgailuaren egindako egokitzapena jasotzen duen Azterketa Teknikoaren txartel eguneratua aurkeztu beharko da.

Etxebizitzak egokitzeko laguntzei dagokienez, fakturaz eta ordainagiriaz gain, organo eskudunak onetsitako obraren amaiera-ziurtagiria aurkeztu beharko da, betiere hala eskatzen bada.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, horien formatua Factura-e eta E4ktur estandarretara edo ezartzen diren beste formatu batzuetara egokituko da. Era elektronikoa sinaturiko beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzako zerbitzu elektronikoen emaile kalifikatuen zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<https://sede.serviciosmin.gob.es/Prestadores>).

12.2. Etxebizitza egokitzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta onuraduna etxebizitzaren jabea ez izan, faktura onuradunaren izenean egin beharko da.

12.3. Ordainketa egiaztatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Banku transferentziaren ziurtagiria.

– Kreditu txartelaz ordaindu izanaren ziurtagiria.

– Enpresa hornitzailearen ziurtagiria, bertan, ondokoak zehaztuta daudela: ordaintzailea, zenbatekoa, ordainketa data, faktura zenbakia eta ordaintzeko era.

– 150,00 eurotik beherako fakturei dagokienez, enpresa hornitzailearen faktura, izenpea eta zigilua dituela, ordaindu dela adierazita.

Iruzurraren aurka borrokatzeko ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan adierazitakoaren arabera (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa), ezingo dira eskudirutan ordaindu in-darrean dagoen araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko dirutan haren kontrabalioa duten eragiketak. Aurreko paragrafoan aipatu den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

12.4. Beste administrazio publiko batzuek zati batean lagundutako eskuratzei gagozkiela, hornitzaileari zuzenean ordainduta, beste administrazio horiek lagundutako zatiaren ordainketa- ren ziurtagiritzat hartuko da laguntza emateko ebazpenaren kopia; eta fakturaren gainerakoaren ordainketa justifikatu beharko da.

12.5. Hornitzaileari laguntza zuzenean ordaintzen zaionean, justifikazio nahikoa izango da enpresa hornitzaileak egindako lagundutako gastuen faktura; laguntzak zenbateko guztia hartzen ez badu, berriz, lagundu gabeko zatiaren ordainketa justifikatuko da artikuluko honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

12.6. Jabekideen erkidegoek ohiko etxebizitzako oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten dituzten obren laguntzei dagokienez, ordainketaren justifikazio nahikoa izango da jabekideen erkidegoko presidentek egindako ziurtagiria, honako hauek adierazita: obraren kostu osoa, jabetzaren gaineko partaide kuota, dirulaguntzaren onuradunari dagozkion kuota, horiek guztiak ordaindu direla adieraziz, eta jabeak ordaindu beharreko gastuen baturak iruzurraren aurka borrokatzeko araudian ezartzen den eskudirutan ordaindu daitekeen muga gainditzen badu, bankuko ziurtagiriak. Obra erkidegoaren funtsen kontura ordaindu bada, hala jasoko da ziurtagirian, eta ordainketaren bankuko ziurtagiria aurkeztuko da.

12.7. Gastua egiaztatzen duen faktura eta ordainketa egiaztatzen duen agiria hilabeteko epean aurkeztu behar dira, eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta, edo, bestela, laguntza emateko ebazpenean bertan ezartzen den aldian, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Ohiko etxebizitza egokitzeko laguntzen kasuan, 2. eranskinean, deialdi honetako 1. puntuan jasotakoak, frogagiriak aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 30 izango da, betiere hilabete bat igaro bada eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Arreta espezializatuko tratamenduen laguntzei dagokienez, hasierako justifikazioa aurkeztu ahalko da, lehen justifikazio hori aurkeztu aurretik jasotako tratamenduari buruzkoa, eta geroago, gutxienez, hilabete bat igaro ondoren, gainerako tratamenduetarako. Justifikazio partzial bakoitzak onartutako laguntza ordaintzea ekarriko du, bidezkoa izanez gero, justifikazioari dagokion zenbatekoa, alegia, deialdi honetan eta uztailaren 20ko 32/2021 Dekretuan ezartzen diren mugak gainditu gabe. Dena dela, justifikazio guztiak aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 30 izango da, betiere hilabete bat igaro bada eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Laguntza baten aurkako errekurtsorik aurkeztu bada, justifikazio agiriak aurkezteko epea zehaztu beharko da errekurtsioa baiesten duen ebazpenean; nolana ere, epe hori ezin da inolaz ere hilabete baino luzeagoa izan, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita.

12.8. Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 50etik gorakoa bada, emandako laguntzaren konturako aurrerakina baimendu ahal izango da, eta aurrerakin hori laguntza eskabidearen eredu normalizatuan eskatu beharko da. Laguntza emateko ebazpenean bertan azalduko da konturako aurrerakina eman dela. Konturako aurrerakina justifikatzeko epea hilabetekoa izango da, aurrerakina benetan ordaintzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, ohiko etxebizitzaren irisgarritasun obren eta laguntza espezializatuko tratamenduen laguntzetan izan ezik, horietan 2023ko abenduaren 30ean amaituko baita.

12.9. Laguntzak onuradunari ordainduko zaizkio, edo, hala badagokio, haren tutoreari edo legezko ordezkariari. Hala ere, enpresa hornitzaileari zuzenean ordaintzeko eskatu ahalko da, laguntza eskatzeko eredu normalizatua erabiliz. Laguntza emateko ebazpenean bertan azalduko da hornitzaileari zuzenean ordaintzeko aukera onartu dela. Salbuespenez, hornitzaileari zuzenean ordaintzeko aukera eskatu ahalko da edozein unetan, justifikatzeko epea amaitu baino lehen. Kasu guztietan, balorazio batzordearen aldeko irizpena ezinbestekoa izango da eskatutako ordainketa zuzena baimentzeko eta, hala behar izanez gero, beste ebazpen bat eman beharko da zuzeneko ordainketa baimentzeko.

12.10. Izapidetze elektronikoa baliatuz gero, justifikazioaren dokumentazioarekin batera erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da, bertan jasotako informazioa eta dokumentazioa egiaztatzeko.

Hamahirugarrena. Laguntzak pilotzea eta bateraezintasunen araubidea

Ematen diren banako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan, banaka hartuta edo estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo erakunde pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak edo onuradunarentzat eskuratutako laguntzaren kostua baino handiagoa.

Laguntza hauen onuradun izateko eskubidea duten bizikideei dagokienez, bateraezina izango da produktu berdina edo antzeko prestazioak dituen bat eskuratzeko laguntza ekonomikoa eskatzea, erabilera pertsonalekoa izan ezean. Eskabideak aztertu ondoren, laguntza bakarra emango da, eta zenbateko handiena dagokion pertsonaren eskabidea aintzat hartuko da.

Hamalagarrena. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak honako hauetan ezartzen denari erabat lotuko zaizkio: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; Diputatuen Kontseiluaren 32/2021 Foru Dekretua, uztailaren 20koa, eta aplikazio orokorreko gainerako guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 14a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

1. Eranskina

Familiaren diru sarreraren mugak, desgaituentzako banako laguntzak jasotzeko gainditu ezin direnak, eta diruz lagungarria den gehieneko ehunekoa, laguntza mota bakoitzeko gehienez ere eman daitekeen zenbatekoari aplikatu beharrekoa. Ez dira aplikatuko deialdi honetako 2. eranskineko 6. apartatuan xedatutako laguntzak.

Lehenengoa. Taula hau aurkeztutako eskabide guztiei aplikatuko zaie deialdia irekitzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne).

	FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA	
	KIDE 1		KIDE 2		KIDE 3		KIDE 4		KIDE 5		6 KIDE EDO GEHIAGO	
	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%
Diru sarrerak honaino	18.562	100	27.842	100	34.802	100	40.022	100	44.027	100	48.428	100
Diru sarrerak honaino	19.026	95	28.538	95	35.673	95	41.024	95	45.127	95	49.639	95
Diru sarrerak honaino	19.501	90	29.251	90	36.565	90	42.049	90	46.255	90	50.879	90
Diru sarrerak honaino	19.988	85	29.982	85	37.478	85	43.100	85	47.410	85	52.151	85
Diru sarrerak honaino	20.487	80	30.733	80	38.415	80	44.177	80	48.597	80	53.454	80
Diru sarrerak honaino	21.000	75	31.500	75	39.376	75	45.281	75	49.811	75	54.792	75
Diru sarrerak honaino	21.525	70	32.289	70	40.360	70	46.415	70	51.055	70	56.161	70
Diru sarrerak honaino	22.064	65	33.096	65	41.369	65	47.574	65	52.332	65	57.565	65
Diru sarrerak honaino	22.614	60	33.924	60	42.404	60	48.764	60	53.640	60	59.005	60
Diru sarrerak honaino	23.183	55	34.770	55	43.464	55	49.983	55	54.982	55	60.478	55
Diru sarrerak honaino	23.762	50	35.640	50	44.551	50	51.233	50	56.356	50	61.991	50
Diru sarrerak honaino	24.354	45	36.532	45	45.665	45	52.513	45	57.765	45	63.541	45
Diru sarrerak honaino	24.963	40	37.445	40	46.805	40	53.826	40	59.209	40	65.131	40
Diru sarrerak honaino	25.587	35	38.380	35	47.975	35	55.172	35	60.689	35	66.759	35
Diru sarrerak honaino	26.226	30	39.341	30	49.175	30	56.552	30	62.206	30	68.428	30
Diru sarrerak honaino	26.883	25	40.324	25	50.404	25	57.964	25	63.762	25	70.136	25
Diru sarrerak honaino	27.555	20	41.332	20	51.664	20	59.413	20	65.356	20	71.890	20
Diru sarrerak honaino	28.243	15	42.365	15	52.955	15	60.900	15	66.988	15	73.689	15
Diru sarrerak honaino	28.950	10	43.422	10	54.279	10	62.422	10	68.664	10	75.529	10
Diru sarrerak honaino	29.674	5	44.508	5	55.636	5	63.981	5	70.379	5	77.419	5
Muga honetatik gora	29.674	0	44.508	0	55.636	0	63.981	0	70.379	0	77.419	0

Bigarrena. Taula hau aplikatuko zaie 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako eskaerei.

	FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA	
	KIDE 1		KIDE 2		KIDE 3		KIDE 4		KIDE 5		6 KIDE EDO GEHIAGO	
	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%	EURO	%
Diru sarrerak honaino	19.769	100	29.652	100	37.064	100	42.623	100	46.889	100	51.576	100
Diru sarrerak honaino	20.263	95	30.393	95	37.992	95	43.691	95	48.060	95	52.866	95
Diru sarrerak honaino	20.769	90	31.152	90	38.942	90	44.782	90	49.262	90	54.186	90
Diru sarrerak honaino	21.287	85	31.931	85	39.914	85	45.902	85	50.492	85	55.541	85
Diru sarrerak honaino	21.819	80	32.731	80	40.912	80	47.049	80	51.756	80	56.929	80
Diru sarrerak honaino	22.365	75	33.548	75	41.935	75	48.224	75	53.049	75	58.353	75
Diru sarrerak honaino	22.924	70	34.388	70	42.983	70	49.432	70	54.374	70	59.811	70
Diru sarrerak honaino	23.498	65	35.247	65	44.058	65	50.666	65	55.734	65	61.307	65
Diru sarrerak honaino	24.084	60	36.129	60	45.160	60	51.934	60	57.127	60	62.840	60
Diru sarrerak honaino	24.690	55	37.030	55	46.289	55	53.232	55	58.556	55	64.409	55
Diru sarrerak honaino	25.307	50	37.957	50	47.447	50	54.563	50	60.019	50	66.020	50
Diru sarrerak honaino	25.937	45	38.907	45	48.633	45	55.926	45	61.520	45	67.671	45
Diru sarrerak honaino	26.586	40	39.879	40	49.847	40	57.325	40	63.058	40	69.365	40
Diru sarrerak honaino	27.250	35	40.875	35	51.093	35	58.758	35	64.634	35	71.098	35
Diru sarrerak honaino	27.931	30	41.898	30	52.371	30	60.228	30	66.249	30	72.876	30
Diru sarrerak honaino	28.630	25	42.945	25	53.680	25	61.732	25	67.907	25	74.695	25
Diru sarrerak honaino	29.346	20	44.019	20	55.022	20	63.275	20	69.604	20	76.563	20
Diru sarrerak honaino	30.079	15	45.119	15	56.397	15	64.859	15	71.342	15	78.479	15
Diru sarrerak honaino	30.832	10	46.244	10	57.807	10	66.479	10	73.127	10	80.438	10
Diru sarrerak honaino	31.603	5	47.401	5	59.252	5	68.140	5	74.954	5	82.451	5
Muga honetatik gora	31.603	0	47.401	0	59.252	0	68.140	0	74.954	0	82.451	0

2. Eranskina

Diru lagundu daitezkeen laguntzen katalogoa, betekizun espezifikokoak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

Katalogo honetan jasotako laguntzak eskuratzeko, oraingo deialdiaren aurreko lau (4) deialdiko berritze epea (aldi horretan, ezin izango da kontzeptu eta behar berdinari heltzeko laguntzarik eskatu) ezarri da, berariaz beste epe bat zehazten den laguntzetan izan ezik.

Mendetasun egoera baloratzeko baremoa (174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa) aplikatzearekin lotutako irizpideak betetzen behar dituzten laguntza-produktuetan, jarduera positiboaren balorazioa aintzat hartuko da, laguntza produktua erabiliz egiten denean.

Izaerari erreparatuta, laguntza produktuak berreskuragarriak edo berreskuraezinak izan daitezke:

a) Produktu berreskuragarriak (PBG) dira hainbat pertsonak behin eta berriro erabil ditzaketenak eta leku batetik bestera eramatean garraio kostuak baizik sortzen ez dituztenak.

b) Produktu berreskuraezinak (PBE) dira pertsona erabiltzaile bakar baten onurarako direnak, edo, aparteko kasuetan, hainbat pertsonaren onurarako aldi berean, eta horren ondorioz eskualdatu ezin direnak.

Oro har, eranskin honetan jasotako produktuak PBE gisa hartuko dira, haien ezaugarriak direla eta, berariaz PBG gisa katalogatzen direnak izan ezik.

Etxebizitzak egokitzeko obrak, duten izaeragatik, PBEtzat joko dira, PBGtzat hartzen diren eskailerak gainditzeko gailu eramagarriak izan ezik.

1. Ohiko etxebizitzan irisgarritasuna hobetzeko laguntzak

– Berritze epea: oraingo deialdiaren aurreko 9 deialdi.

Ohiko etxebizitzaren irisgarritasunerako laguntzak eskatzen dituenak, beste erakunde publiko edota pribatu batzuek laguntzak emateko/ukatzeko ebazpenak aurkeztu beharko ditu, laguntza hori besteen subsidiarioa delako. Dirulaguntza eskatu duen pertsonak beste dirulaguntza horiek eskuratzeko eskubidea edukitzeko betekizunak betetzen ez baditu, horren berri eman behar du zinpeko aitorten baten bidez; zinpeko aitortenak dioena teknikari eskudunek egiaztatuko dute, eta horri buruzko txostena egingo dute.

1.a) Arkitektura oztopoak kentzea:

Halako laguntzak eman ahalko dira, baldin eta desgaitasuna duen pertsonaren premia etxebizitza okupatu ondoren agertu bada. Lehen okupazioan egokitutakotzat kalifikatutako etxebizitzaren kasuan, kalifikazio horretatik 10 urte igaro beharko dira.

– Sarbideetan: oztopoak kentzea bide publikorako sarbidean; oztopoak kentzea atarian (arrapala, altxagailua, igogailua zero kotara jaistea).

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 7 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

– Eskaileretan: Eskudelak, plataforma jasotzailea, eskailera-igogailu ez-eramangarria eta igogailua jartzea.

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 7 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

– Eskailerak gainditzeko eramangarria (PBG).

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 12 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

– Igogailuaren instalazioa eta aldaketak: Ateak eta kabina aldatzea.

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 7 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina) eta/edo ehuneko 33ko edo handik gorako desgaitasun maila eduki (1971/1999 ED), bihotz edo arnas eritasun baten ziozkoa.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua kalkulatzeko, modulu hauek aplikatuko dira:

EGIKARITZE UNITATEA (*)	GEHIENKO ZENBATEKOA	NEURKETA UNITATEA (N. U.) ETA N. U. BAKOITZEKO PREZIOA (HALA BADAGOKIO)
Arrapalak		800,00 euro/metro
Igogailua / Plataforma Jasotzailea instalatzea	12.000,00 euro	Unitatea
Igogailua 0 mailara jaistea	12.000,00 euro	Unitatea
Igogailuko kabina handitzea	4.000,00 euro	Unitatea
Igogailuaren kanpoko ateak aldatzea	800,00 euro	Unitatea
Igogailu berria instalatzea	12.000,00 euro	Unitatea
Sartzeko ateak handitzea	1.000,00 euro	Unitatea
Ateak automatizatzea	1.500,00 euro	Unitatea
Atezain automatiko irisgarria	500,00 euro	Unitatea
Maniobra egiteko guneak egokitzea:		
Zoru irristagaitza		120,00 euro/m ²
Trenkadak lekualdatzea/kentzea		80,00 euro/m ²
Barra eta helduleku finkoak		120,00 euro/metro
Eskailerak gainditzeko gailu eramangarria (PBG)	4.000,00 euro	Unitatea

1.b) Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala: arkitektura oztupoak kentzea, espazio komunak egokitzea eta ingurunea kontrolatzea.

Mugitzeko desgaitasuna 33koa edo handik gorakoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), bai eta eskaeraren xede diren aldaketak justifikatzen duten mugapen funtzionalak ere. Desgaitasun psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasun maila izan beharko du aitortuta (1971/1999 Errege Dekretua) eta mugikortasuna baldintzatuta izan behar du jokabide nahasmenduen zioz.

Ingurunearen kontrolari lotutako produktuak direla eta, ehuneko 75eko edo handik gorako desgaitasun maila izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko jardueretan parte hartzeko mugapenei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena). Laguntza produktu horiek autonomia pertsonala sustatzeko baino ez dira izango, eta deialdi bakoitzeko gehieneko finantzaketa 2.500,00 eurokoa izango da.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua kalkulatzeko, modulu hauek aplikatuko dira:

ETXEBIZITZAREN EGOKITZAPEN FUNTZIONALA		
EGIKARITZE UNITATEA (*)	GEHIENKO ZENBATEKOA	NEURKETA UNITATEA (N. U.) ETA N. U. BAKOITZEKO PREZIOA (HALA BADAGOKIO)
Ateak handitzea		
Ate zabukaria / ate gidariduna	1.000,00 euro	Unitatea
Trenkadan sartutako ate gidariduna	1.600,00 euro	Unitatea
Ateak automatizatzea	1.500,00 euro	Unitatea
Trenkadak lekualdatzea/kentzea		80,00 euro/m ²
Barra eta helduleku finkoak		120,00 euro/metro
Instalazioak eraberritzea		
Elektrikoa (kontrol koadroa jaistea)	500,00 euro	Unitatea
Mekanismo elektrikoak lekualdatzea/instalatzea	75,00 euro	Unitatea
Gasa (galdera eta/edo ixteko giltzak jaistea)	500,00 euro	Unitatea
Dutxa zoruaren arrasean instalatzea	2.200,00 euro	Unitatea
Konketaren orde, konketa irisgarria instalatzea		
Konketa lekualdatu gabe	650,00 euro	Unitatea
Konketa lekualdatuta	1.200,00 euro	Unitatea
Komunaren orde, komun irisgarria instalatzea		
Komuna lekualdatu gabe	650,00 euro	Unitatea
Komuna lekualdatuta	1.300,00 euro	Unitatea
Bideta kentzea	200,00 euro	Unitatea
Berogailua lekualdatzea tresna sanitarioak lekualdatzeagatik	500,00 euro	Unitatea
Manpara irisgarria (80 cm-ko pasagunea, profilik edo errailik gabeta manpararen eta dutxaren artean)	1.000,00 euro	Unitatea

(*) Bi tauletan ezarritako unitateko prezio horiek aintzat hartzen dituzte dena delako obra gauzatzeko lan guztiak: desmuntatzea, eraistea, hondakinak eramatea, paramentuak homogeneizatzea, materialak, eskulana, garraioak, ordainsari profesionalak eta zergak.

Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala hobetzen duten jarduketak egiteko, baldin eta taulan jasota ez badaude, merkatuko batez besteko prezioa aplikatuko da.

1.a eta 1.b epigrafeetako eskabideei eman beharreko gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontuaren balioa kontuan hartuko da, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek diruz lagundutako zenbatekoa deskontatu ondoren, honela:

– 1.a epigrafeari dagokionez, laguntza ekonomikoa ezin izango da 12.000,00 euro-tik gorakoa izan.

– 1.b epigrafeari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa 14.500,00 euro-koa izango da, honela banakatuta: Bainugela egokitzeko laguntza ekonomikoa ezin izango da 8.000,00 euro-tik gorakoa izan; ingurunea kontrolatzeko ekintzetarako gehieneko zenbatekoa 2.500,00 euro-koa izango da; eta etxebizitzaren barrualdearen guztizko egokitzapenaren kostua, bainugela barne, ez da 12.000,00 euro-tik gorakoa izango.

2. Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak

Epigrafe honetako produktu guztiak produktu berreskuragarritzat (PBG) hartzen dira.

2.a) Janariak eta edariak prestatzen laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 130,00 euro unitateko.

2.b) Jaten eta edaten laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 50,00 euro unitateko.

2.c) Garbitzen laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 200,00 euro unitateko.

“Jatea eta edatea” (2.b) eta “etxeko lanak egitea” (2.a eta 2.c) jardueri dagozkien itemetan, mugitzeko desgaitasuna ehuneko 33koa edo handik gorakoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua) eta eskaeraren xede diren produktuak justifikatzen duten mugapen funtzionalak eta/edo jarduera negatiboa MBBn (mendetasun egoera baloratzeko baremoan).

3. Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak

Epigrafe honetako produktu guztiak produktu berreskuragarritzat (PBG) hartzen dira.

3.a) Janzten eta erantzten laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 100,00 euro unitateko.

3.b) Komuneko funtzioetan laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 50,00 euro unitateko.

3.c) Garbitzen, dutxatzen eta bainatzen laguntzeko produktuak. Duxarako aulki baskulagarria, gehienez ere, 3.000,00 euro unitateko. Gainerako produktuak, gehienez ere, 1.200,00 euro unitateko.

3.d) Manikura eta pedikura egiten laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 100,00 euro unitateko.

3.e) Ilea zaintzen laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 100,00 euro unitateko.

“Janztea” (3.a), “garbitzea” eta “zaintza pertsonaleko beste zeregin batzuk egitea” (3.b, 3.c, 3.d eta 3.e) jardueri dagozkien itemetan, mugitzeko desgaitasuna ehuneko 33koa edo handik gorakoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua) eta eskaeraren xede diren produktuak justifikatzen duten mugapen funtzionalak eta/edo jarduera negatiboa MBBn (mendetasun egoera baloratzeko baremoan).

4. Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak

4.a) Ikusten laguntzeko produktuak. Berritze epea: bi (2) deialdi, oraingo deialdiaren aurretik, behin erabiltzeko ukipen leiarra izan ezean.

4.a.1. Betaurrekoak erostea. Gehienez ere, 580,00 euro.

Urruneko betaurrekoak erosteko laguntza jasotzeko ezinbestekoa da ehuneko 33ko edo handik gorako desgaitasuna izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenarekin zerikusia daukana (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

Hurbileko betaurrekoak erosteko laguntza jasotzeko ezinbestekoa da ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenarekin zerikusia daukana (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.a.2. Lentillak erostea. Gehienez ere, 480,00 euro.

4.a.2.1. Erabili eta botatzeko lentillen erosketa urtero berrituko da. Gehienez ere, 160,00 euro.

Ezinbestekoa da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handik gorakoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta harekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

Betaurrekoak erosteko laguntza eta lentillak erostekoa ez dira bateragarriak, baldin eta ez badago medikuaren berriazko preskripzioa biak batera erabili beharra justifikatzen duena. Horretarako, sare publikoko oftalmologo baten txostena aurkeztu behar da.

4.a.3. Ikusten laguntzeko beste produktu batzuk. Iragazkiak, leiarrak, lupak eta teleskopioak (PBG). Gehienez ere, 800,00 euro.

Ezinbestekoa da ehuneko 65eko desgaitasuna edo handik gorakoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.a) Atalean jasotako laguntzak eskuratzeko, ez dira jaso behar izan oraingoaren aurreko bi (2) deialdiko epean, kontzeptu berdinen zioz eta beharrizan berari erantzuteko laguntzak, medikuaren preskripzio berriagatik izan ezik, eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu delako.

4.b) Entzuten laguntzeko produktuak.

Ezinbestekoa da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handik gorakoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), komunikazio-harrera jardueretan parte hartzea mugatzen duten entzumenaren urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.b.1 eta 4.b.2 ataletan jasotako produktuak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren dirulaguntza jasotzeko aukera ematen duen adin-taldeko kidea izanez gero (2023an, 26 urtera arteko adina ezarri da), eskatzaileak ebazpen egokia aurkeztu beharko du, honako hau laguntza subsidiarioa delako.

4.b.1. Audifonoak erostea, moldeak eskuratzea ere aintzat hartuta. Gehienez ere, 1.800 euro unitateko.

4.b.2. Audifonoak konpontzea, moldeak ere aintzat hartuta. Gehienez ere, 800,00 euro.

4.b.3. Entzuten laguntzeko produktuen osagarriak. Audio konexioak (indukzio, irrati maiztasun edo infragorritzko sistemak). Gehienez ere, 800,00 euro.

4.b.1. eta 4.b.3. atalean jasotako laguntzak eskuratzeko, ez dira jaso behar izan oraingoaren aurreko bi (2) deialdiko epean, kontzeptu berdinen zioz eta beharrizan berari erantzuteko laguntzak, medikuaren preskripzio berriagatik izan ezik, eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu delako eta protesiak egokituta zuzendu ezin direlako.

4.c) Aurrez aurre komunikatzen laguntzeko produktuak. (PBG). Gehienez ere, 4.500,00 euro.

Laguntza eskuratu ahal izateko, ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), komunikazio-ekoizpen jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatzizko mezuen bidez parte hartzea galarazten duten eta komunikazio gailu eta teknikak erabiltzera behartzen duten urritasunei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.d) Telefonoz deitzeko edota telefonoaren ordeko komunikazioa errazteko produktuak. (PBG). Gehienez ere, 300,00 euro unitateko.

Laguntza eskuratu ahal izateko, ehuneko 33ko edo handik gorako desgaitasuna behar da, entzumen urritasuneko kasuetan, edo ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna, ikusmen urritasuneko kasuetan (1971/1999 Errege Dekretua), komunikazio-ekoizpen jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatzizko mezuen bidez parte hartzea galarazten duten eta komunikazio gailu eta teknikak erabiltzera behartzen duten urritasunei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.e) Alarma, ohar eta seinaleetarako laguntza produktuak. (PBG).

4.e.1. Dei abisueterako eta alarmarako sistema. Gehienez ere, 2.000,00 euro.

Baldintza hauetako bat bete behar da, gutxienez:

— Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handik gorakoa (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

— Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handik gorakoa (1971/1999 Errege Dekretua), entzumen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

Lokalizatzaileei gagozkiela, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handik gorakoa behar da, denbora- eta espazio-gaitasunari eragiten dion asaldura neurokognitiboari dagokionez.

4.e.2. Abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak: buruak, likornioak, erakusleak, sakagailuak, edo kommutadoreak, euskarriak, armazoiak eta tekla blokeagailuak, besaurrea bermatze-koak. Gehienez ere, 600,00 euro.

Laguntza eskuratu ahal izateko, ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna behar da, (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak jaso eta eramateko jardueri edota eskuaren eta besaurrearen erabileraren mugapenei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.f.) Irakurtzen eta idazten laguntzeko produktuak. (PBG).

4.f.1. Kantoreak erostea. Gehienez ere, 300,00 euro.

Laguntza eskuratu ahal izateko, ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna behar da, (1971/1999 Errege Dekretua), objektuak jaso eta eramateko jardueri edota eskuaren eta besaurrearen erabileraren mugapenei dagokienez (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.f.2. Braille sisteman idazteko tresnak: Braille sisteman idazteko makinak eta sistema horretan oharrak hartzeko tresna eramangarriak. Gehienez ere, 300,00 euro.

Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handik gorakoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

4.g) Ordenagailuak (PBG).

Eskatzaileak ehuneko 65ekoa desgaitasuna edo handik gorakoa izan behar du (1971/1999 Errege Dekretua), ahozko eta idatzizko komunikazio-ekoizpen jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena); halaber, beharrezkoa da haren adimen funtzioak ordenagailua erabiltzeko egokiak izatea eta eskatzaileak ordenagailua nahikoa ondo erabiltzen jakitea.

4.g.1. Softwarea eta sarrera-irteerako gailu arruntak dituzten ordenagailuak. Gehienez ere, 750,00 euro.

4.g.2. Softwarea eta sarrera-irteerako gailu bereziak. Gehienez ere, 3.000,00 euro.

5. Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzeko laguntzak.

5.a) Gurrpil aulkiak. (PBG).

Eskuzko gurrpil aulkiak, gurrpil aulki elektrikoak eta 5.a.5, 5.a.6 eta 5.a.8 epigrafeetan jasotako aukera diruz lagungarriak eskuratzeko, eskatzaileak beste edozein administrazio publikoren dirulaguntza emateko/ukatzeko ebazpena aurkeztu beharko du, honako laguntza hau subsidiarioa delako.

Berritze epea, produktu bakoitzerako adierazitakoa izango da, eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala ondorioz, medikuak beste agin bat eman ez badu salbu.

5.a.1. Eskuzko propulsioko gurrpil aulkia erostea. Gehienez ere, 2.000,00 euro. Berritze epea: oraingo deialdiaren aurreko bi (2) deialdi.

Baldintza hauetako bat bete behar da, gutxienez:

IV. motako desgaitasun maila edo goragokoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatuta duelako (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorrari lotua.

– Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan “A” irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

– Desgaitasuna psikologikoko kasuetan, eskatzaileak honakoak izan behar ditu: ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortuta (1971/1999 Errege Dekretua), mugikortasun baldintzatua jokabide nahasmenduen ondorioz, C irizpen positibo bat onetsita eta Osakidetzaren edo erakunde publikoaren preskripzioa gurpildun aulkia erabiltzeko.

5.a.2. Propultsio elektrikoko gurpil aulkia erostea. Gehienez ere, 7.500,00 euro.

Laguntza hau bateraezina da Scooter eta Handbike elektrikoa eskuratzeko laguntza eskaerarekin, aurreko produktua erosi zenetik, gutxienez, oraingoaren aurreko lau (4) deialdi igaro ez badira.

Ehuneko 75eko edo handik gorako desgaitasun maila izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), ibili eta mugitzeko jardueretan parte hartzea eta objektuak eraman eta erabiltzea mugatuta izateagatik (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), baldin eta horiek bat badatoz ibilera independenterako ezintasun iraunkorrarekin eta goiko gorputz adarrak erabiliz eskuzko gurpil aulkiak propultsatzeko ezintasun funtzional iraunkorrarekin. Hala berean, beharrezkoa da adimen eta ikusmen gaitasunek aukera ematea gurpil aulki elektrikoa behar bezala kontrolatzeko, norberaren osotasuna edo beste pertsona batzuen arriskuan jarri gabe. Egiatzapen hori egiteko, osasun publikoaren sareko medikuaren txosten ofiziala, ikusmen zorrotzasun zuzendua eta kanpimetria jasotzen dituen, aurkezteko galdatu ahalko zaio eskatzaileari.

5.a.3. Baskulazio aukera; 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin bateragarria. Geheinez ere, 1.300,00 euro.

5.a.4. Eserlekua igotzeko aukera; 5.a.2 atalekoarekin bateragarria. Gehienez ere, 1.900,00 euro.

5.a.5. Kokotsa kontrolatzeko aukera; 5.a.2 atalekoarekin bateragarria. Gehienez ere, 2.900,00 euro.

5.a.6. Posizio sistemaren aukera; 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin bateragarria. Gehienez ere, 1.500,00 euro.

5.a.7. Zutitzeko sistemaren aukera; 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin bateragarria. Gehienez ere, 1.600,00 euro.

5.a.8. Gurpil aulkian dagoena lotzeko/atxikitze sistemak; 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin bateragarria. Gehienez ere, 500,00 euro.

5.a.3 epigrafitik 5.a.8 epigraferainokoa ageri diren aukerak bateragarri dira gurpil aulkiekin; beraz, produktu nagusia eskuratzeko beharrezko baldintzak bete behar dituzte alde aurretik.

Posizio, baskulazio eta zutitze sistemarako laguntza eskuratu ahal izateko, IV. motako desgaitasuna izan behar da, “gorputzaren jarrera aldatzeko eta mantentzeko” jardueretan parte hartzeko aukera mugatuta izateagatik (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena).

Berritze epea: produktu nagusiarentzat ezarritakoa. Posizio sistemaren aukerari dagokionez, berritzeko epea ez da aplikatuko, baldin eta Osasun Sailak dagokion dirulaguntza eman badu.

5.b) Scooter-a erostea (3 edo 4 gurpilekoa). (PBG). Gehienez ere, 2.000,00 euro.

Laguntza hau bateraezina da gurpil aulki elektrikoa eta Handbike elektrikoa eskuratzeko laguntza eskaerarekin, aurreko produktua erosi zenetik, gutxienez, oraingoaren aurreko lau (4) deialdi igaro ez badira.

Baldintza hauetako bat bete behar da, gutxienez:

– IV. motako desgaitasun maila edo handik gorakoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatuta izateagatik (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena). Hala berean, beharrezkoa da adimen eta ikusmen gaitasunak egokiak izatea scooter-a ondo kontrolatzeko, erabiltzailearen osotasuna edo beste pertsona batzuen arriskuan jarri gabe.

– Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan, gutxienez, 12 puntuko irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

5.c) Gurpil aulkia konpontzea. Gehienez ere, 1.800,00 euro.

Produktu nagusia emateko beharrezko baldintzak bete beharko dira aldez aurretik.

Gurpil aulkia, eskuzkoa zein elektrikoa, konpontzeko laguntza eskatuz gero, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dirulaguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpena aurkeztu behar du, honako laguntza hau Jaurlaritzaren laguntzarekiko subsidiarioa baita.

Gurpil aulkia konpontzearen barruan sartzan da haren elementuetako edozein aldatzea berritzeko eperik gabe, betiere enpresa hornitzaileak ezarritako bermealdia amaitu bada. Horretarako, produktu nagusiaren faktura eskatuko da.

5.d. Propultsio elektrikoko gailua eskuzko gurpil aulkientzat. (PBG). Gehienez ere, 1.000,00 euro.

Laguntza produktu hori teknikoki bidezkotzat joko da baldin eta pertsona desgaituak aulki elektrikoa erosteko laguntzarako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu, "aulkia erabiltzeko ikusmen edo adimen kontrol nahikoa izatea" izan ezik, eta agiri bidez frogatzen bada zaintzaile nagusiak muga organiko-funtzionalak dituela, gutxienez ere, ehuneko 33ko desgaitasun moderatua eragiten diotenak eskuzko aulkia mugitzearekin zerikusia duten funtzioetan (1971/1999 Errege Dekretua), edo, bestela, desgaituak aulki elektrikoa eskuratzeko eskubidea izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu eta zaintzaile nagusiak 70 urte edo gehiago baditu.

5.d.1. Propultsio gailu eskuzkoa edo elektrikoa, erabiltzaileak berak mugitzen duen gurpil aulkientzat. Gehienez ere, 2.500,00 euro.

Propultsio elektrikoko unitatea edo handbike elektrikoa propultsio elektrikoko gurpil aulkia eta Scooter-a eskuratzeko laguntza eskaerarekin bateraezina da, aurreko produktua erosi zenetik, gutxienez, oraingoaren aurreko lau (4) deialdi igaro ez badira.

Eskuzko propultsioko unitatea (handbike barne) emateko, gutxienez, baldintza hauetako bat bete behar da:

– Ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duen desgaitasuna (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), eta bat etorri behar da laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin.

– Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

Kasu bietan, pertsonak muskuluen indar nahikoa eduki beharko du besoetan eskatutako laguntzari eragiteko.

Propultsio gailu elektrikoa (handbikea barne) jaso ahal izateko, ibiltzeko eta mugitzeko eta objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko aukera mugatzen duen ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasuna (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena) izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua) laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin bat datorrena. Hala berean, beharrezkoa da adimen eta ikusmen gaitasunak egokiak izatea gailua ondo kontrolatzeko, erabiltzailearen osotasuna edo beste pertsona batzuen arriskuan jarri gabe.

Deialdi honetan ez da dirulaguntzarik emango kirola egiteko handbike independente edo modularrak erosteko.

5.e. Ibilgailuak egokitzea.

1) Gidatzeko egokitzapenak:

Eskatzailearen gidabaimenean berariaz ageri diren egokitzapenak egiteko soilik emango da dirulaguntza, gidatzeko baimen eta lizentzietan agertu behar diren "Batasuneko kode harmonizatuak eta kode nazionalak" (Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duen 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, I. eranskina; eta INT/1676/2016 Agindua, urriaren 19koa) aintzat hartuta.

5.e.1. Motorrari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 1.200,00 euro.

5.e.2. Azeleragailuari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 1.800,00 euro.

5.e.21. Balaztari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 800,00 euro.

5.e.3. Enbragea eta aldagailuari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 1.800,00 euro.

5.e.4. Esku balaztari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 1.200,00 euro.

5.e.5. Direkzio sistemari eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 125,00 euro.

5.e.6. Bigarren mailako funtzioei eragiteko egokitzapenak. Gehienez ere, 1.600,00 euro.

2) Segurtasun-elementuak: uhalak, ainguraguneak, buru euskarriak.

Berritze epea: oraingo deialdiaren aurreko bederatzi (9) deialdi.

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 12 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

5.e.7. Segurtasun uhalak eta arnesak erostea. Gehienez ere, 300,00 euro.

Desgaitasun psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasun maila aitortuta izan beharko du (1971/1999 ED) eta mugikortasuna baldintzatuta izan behar du jokabide nahasmenduen zioz, C irizpen positibo batek onetsita.

5.e.8. Berariaz diseinatutako eserlekuak eta kuxinak erostea. Gehienez ere, 2.300,00 euro.

3) Ibilgailuan sartzeko egokitzapenak: arrapalak, plataforma jasotzaileak eta ibilgailuetan sartzeko garabiak.

Berritze epea: oraingo deialdiaren aurreko bederatzi (9) deialdi.

Mugitzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 12 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina). Desgaitasun psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo handik gorako desgaitasun maila aitortuta izan beharko du (1971/1999 Errege Dekretua) eta mugikortasuna baldintzatuta izan behar du jokabide nahasmenduen zioz, C irizpen positibo batek onetsita.

5.e.9. Pertsonak autoetan sartzeko garabiak erostea. Gehienez ere, 1.600,00 euro.

5.e.10. Gurpil aulkian autora igotzeko plataforma. Gehienez ere, 5.000,00 euro.

5.e.11. Arrapala tolesgarria erostea. (PBG). Gehienez ere, 2.500,00 euro.

5.e.12. Gurpil aulkia autoaren gainean edo barruan jartzen laguntzeko produktua. Gehienez ere, 4.500,00 euro.

5.e.13. Gurpil aulkia autoan lotzeko ekipamendua. Gehienez ere, 1.300,00 euro.

5.e.14. Autoaren karrozeriaren egokitzapenak. Gehienez ere, 5.000,00 euro.

5.f. Gidabaimena lortzea edo birmoldatzea. Gehienez ere, 1.000,00 euro.

Garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasuna ebazten duen baremoan, gutxienez, 7 puntu jaso behar dira (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

Laguntza hau behin bakarrik emango da.

5.g. Laguntza produktuak pertsonak jasotzeko, mugitzeko, lekualdatzeko eta atseden hartzeko. (PBG).

5.g.1. Gurpil garabia erostea. Gehienez ere, 1.800,00 euro. Bateriaezina da 5.g.2 eta 5.g.11 epi-grafetan ageri direnekin, gutxienez, aurreko produktua diruz lagundu zenetik 4 deialdi igaro ez badira.

5.g.11. Garabi mugikorra eskuratzea pertsona bat zutik jartzeko. Gehienez ere, 2.000,00 euro. Bateriaezina da 5.g.1 eta 5.g.2 epigrafeetan ageri direnekin, gutxienez, aurreko produktua diruz lagundu zenetik 4 deialdi igaro ez badira.

5.g.1 eta 5.g.11 produktuen bateraezintasunari lotutako berritze epea salbuetsi ahal izango da, baldin eta eskatzailearen orientazioko txosten teknikoak justifikatzen badu produktu hori egokiena dela, erabiltzailearen egoera kliniko funtzionalak okerrera egin duelako.

5.g.2. Hormari, zoruari edo sabaiari atxikitako garabia eskuratzea, hura instalatzeko beharrezkoa den obra zibil osagarria barne. Gehienez ere, 4.500,00 euro. Bateriaezina da 5.g.1 eta 5.g.11 epigrafeetan ageri direnekin, gutxienez, aurreko produktua diruz lagundu zenetik 4 deialdi igaro ez badira.

5.g.3. Lekualdatzen eta biratzen laguntzeko produktuak. Gehienez ere, 1.500,00 euro.

5.g.1 eta 5.g.2 ataletan ageri diren produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da ehuneko 75eko edo handik gorako desgaitasuna izatea "norberaren gorputza lekualdatzeko" eragozpenek edota jarduera negatiboa edukitzeagatik "gorputzaren posizioa aldatzen eta mantentzen" delako zeregin guztietan, SM laguntza mailarekin, "gorputzaren grabitate zentroa aldatzea etzanda egonik edo eserita egotea" jardueran izan ezik, edo Onuradunak ezintasun larria eragiten duen gaixotasun neurodegeneratiboren bat izatea (IV. motakoa (1971/1999 Errege Dekretua), arintzen saiatzen den jardueran (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena), hau da, gorputzaren lekualdaketaekin zerikusia duen mugaketa horretan.

5.g.11 ataleko laguntza produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da ehuneko 75eko edo handik gorako desgaitasuna izatea norberaren "gorputza lekualdatzeko eragozpenengatik" edota jarduera negatiboa edukitzeagatik, FP/SM laguntza mailarekin, jarduera honen zenbait egitekotan: "gorputzaren posizioa aldatzea eta mantentzea": "aulki batean eserita egotea eta zutik jartzea"; "zutik egotea eta zutik egon ondoren aulkian esertzea".

5.g.3 ataleko laguntza produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa izatea, mugak izateagatik norberaren gorputza lekualdatzeko jardueretan parte hartzeko eta/edo jarduera negatiboa FP/SM laguntza mailarekin gutxienez "gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea" jarduerako pausoetan.

5.g.4. Ohe artikulatua erostea. (PBG). Gehienez ere, 600,00 euro.

5.g.4.1. Koltxoia Gehienez ere, 300,00 euro.

5.g.4.2. Koltxoiaren zorroa. Gehienez ere, 50,00 euro.

Teknikoki bidezkoztat joko da 5.g.4, 5.g.4.1 eta 5.g.4.2 ataletan jasotako laguntza produktuak ematea, baldin eta produktuen onuradun diren pertsonak gaixotasun kroniko edo neurodegeneratibo bat badute, IV. motako desgaitasun larria eragiten duena (1971/1999 Errege Dekretua) arintzea xede den jardueraren mugaketan, hau da, ohean gorputza lekuz aldatzeko jardueretan. Mendekotasun egoera onartuta badaukate, jarduera negatiboa aurkeztea, laguntza fisiko partzial motako laguntza beharra, gehieneko ordezkatzeta eta laguntza berezia barne, gutxienez "gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea" jardueraren 5. zereginetan.

Berritze epea: oraingo deialdiaren aurreko bederatzi (9) deialdi.

5.g.5. Ohe aukerak:

5.g.5.1. Ohe eskudelen aukera. Gehienez ere, 100,00 euro.

Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handik gorakoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), erabiltzaileak mugak izateagatik "gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea" jardueran parte hartzeko, erori eta norberaren osotasuna kaltetzeko arrisku erantsiari lotuta, hauetakoren baten ondorioz: goiko funtzio neurologikoen nahasmendua, krisi komizial edo epileptiko larriak eta/edo Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapeneko "gorputzaren posizioa aldatu edo mantentzea" jarduerarako laguntza fisiko erabatekoaren eta bereziaren beharra.

5.g.52. Norbere kasa altxatzeko oheari lotutako barren, tripodearen edo eskaileraren aukera. Gehienez ere, 300,00 euro.

Gutxienez, ehuneko 33ko desgaitasuna izan behar da arindu nahi den urritasunean, eta zailtasunak eduki behar dira “gorputzaren posizioa aldatu edo mantentzea” jarduera gauzatzeko.

5.g.53. Ohea altxatzeko aukera. Gehienez ere, 300,00 euro.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da ehuneko 75ekoa edo handik gorako desgaitasuna izatea (1971/1999 Errege Dekretua) “gorputzaren posizioa aldatzea edo mantentzea” jarduerari lotutako mugapenak izateagatik (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), eta, gainera, jarduera negatiboa izatea “gorputzaren posizioa aldatzea eta mantentzea” jarduerari lotutako sei zereginetan, SM edo AE laguntza mailarekin.

5.h. Produktuak konpontzea: 5.b, 5.g.1, 5.g.2 eta 5.g.11 eta 5.g.4 eta 5.g.53. epigrafeetan barne hartutakoa.

Gehienez, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoaren ehuneko 50, konponketa eskatzen den produktu nagusiari dagokiona.

Eskatzaileak produktu nagusia emateko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko ditu, eta produktu horrek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderen dirulaguntza jasota egon beharko du.

Konpontzearen barruan sartzen da haren elementuetako edozein aldatzea berritzeko eperik gabe, betiere enpresa hornitzaileak ezarritako bermealdia amaitu bada. Horretarako, produktu nagusiaren faktura eskatuko da.

6. Laguntza espezializatua

Garapenaren nahasmenduak dauzkaten edo edukitzeko arriskua duten umeentzat da, eta beharrezkoa da hala baloratu edukitzea organo eskudunak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren I. tituluko III. kapituluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek arautzen du mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 eta 58/2014 foru dekretuen bidez aldatuta dago. Beharrezkoa da, gainera, fisioterapia, logopedia edota erabateko estimulazioko zerbitzuen esku-hartzeren bat programatuta edukitzea. Aurrekoaz gain, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan, Euskal Autonomia erkidegoko arreta goiztiarreko esku hartze integralari buruzkoan (EHAA, 45 zk., 2016ko martxoaren 7koa), xedatzen dena aplikatuko da eremu horretan.

6.1. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzuak:

6.1.a. Arreta goiztiarra: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundetik kanpo jasotako fisioterapia, logopedia eta estimulazio orokorreko zerbitzuak. Gehienez ere, benetako kostua.

Arreta goiztiarreko esku hartzea diruz lagungarria izango da, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

– Gasteiztik 35 kilometrotara baino gehiagotara bizi bada interesduna.

Tratamendua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Erregistro eta Ikuskaritza Zerbitzuak baimendutako erakunde batek egiten badu, salbu eta esku hartzea 2020ko otsailaren 1a baino lehen hasitako arreta goiztiarreko programa baten barruan hasi bada, edo tratamendu hori, hurbiltasunagatik, beste probintzia edo autonomia erkidego batean egiten bada, lurralde historikoan ez dagoelako baimendutako zentrorik bizilekutik 35 kilometro baino gutxiagoko distantziara; kasu horretan, lurralde horretan indarrean dagoen araudia bete beharko da, zentroen funtzionamendua baimentzeari/egiaztatzeari dagokionez.



6.1.c. Garraioa: gehienez ere, benetako kostua.

Arreta goiztiarreko zerbitzuaren onuradunaren bizitokia arreta espezializatua eman behar den udalerrri atal honetan aipatzen denetik kanpo dagoenean. Zerbitzuaren onuradunak eta laguntzaile batek onuraduna bizi den herriaren eta arreta eman behar zaion herriaren artean egiten dituzten joan-etorrien gastuak ere kontzeptu honetan sartu ahal izango dira. Garraiobide publikoa nahiz pribatua erabiltzeagatik ordainduko dira gastuak, eta doitu egingo dira zerbitzu arrazoiengatik zor diren kalte ordainen arloan indarrean den araudian ezartzen denaren arabera.

7. Bestelako laguntza bereziak eta osagarriak

Aparteko kasu batzuetan, aurreko kapituluetan ezartzen eta tipifikatzen ez diren ekintzak edo laguntza bereziak ere finantzatu ahal dira, aldez aurretik, aldeko txosten teknikoa jasota, eskatzailearen arreta betetzeko onuragarritzat jotzen badira. gehienez ere, benetako kostua.

Era berean, laguntza berreskuragarriak erabiltzeko ezinbestekoak diren eta urtean urteko deialdian ezartzen den zenbatekoa gainditzen duten egokitzapenak finantzatu ahal izango dira, laguntza osagarri moduan. gehienez ere, benetako kostua.

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p>Ezintasuna onartuta duten pertsonentzako banakako laguntzak</p> <p style="text-align: right; font-size: 24pt;">029</p> 
--	--

DEIALDIAREN URTEA **Eskatzailearen datuak**Hurrengo hau denez: Onuraduna Legezko ordezkaria

Lehen abizena Bigarren abizena Izena

Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila

Helbidea (jakinarazpenetarako) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea

P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat

Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa

Eskatutako dirulaguntzaren onuradunaren datuak

(Eskatzailea eta onuraduna pertsona bera badira, ez bete)

Lehen abizena Bigarren abizena Izena

Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila

Helbidea (Kalea/ Plaza) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea

P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat

Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa

Laguntza honentzat **ESKATZEN DU** :

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA		
Lan etekinak eta jarduera etekinak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
	€	
	€	
	€	
Pentsioak, sorospenak eta prestazioak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
Alargun pentsioa	€	
Erretiro pentsioa	€	
Baliaezintasun handia	€	
KGP/GOF/MGL	€	
Beste batzuk (zehaztu)	€	

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA				
Balio higikorrak				
Deskripzioa	Hauek ditu jabetzan	Zenbatekoa/Saldoa	Etekina	Titularra
Aurrezki libretak/ Kontu korranteak		€	€	
Bonoak, zor publikoa, letrak ...		€	€	
Inbertsio funtsak...		€	€	
Akzioak/obligazioak...		€	€	
Beste batzuk (zehaztu)		€	€	
Balio higiezinak (ohiko etxebizitza, etxeak, hiri edo landa-finkak, gozamenak...)				
Mota	Deskripzioa	Katastroko balioa	Etekina	Titularra
		€	€	
		€	€	
		€	€	

Adierazten dut ez dudala beste balio higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta Espainiako beste autonomi -erkidego batzuetan ere.

Eskualdaketak, Dohaintzak			
Deskripzioa	Data	Balioa	Hartzailea
		€	
		€	
		€	

- Agintzen dut GOFeri itzuliko dizkiodala eskatzen dudan laguntza onartu ondoren eskuratzen ditudan laguntza produktuak (II. Eranskinean berreskuratzeko modukoak izendatuta dauden produktuak).
- Eskatzen dut aurrerakina emateko, onartutako dirulaguntzaren kontura. Horrez gain, agintzen dut gastua egin izana justifikatuko dudala, deialdi bakoitzean ezartzen den epearen barruan.
- Eskatzen dut zuzenean hornitzaileari ordaintzeko emandako laguntza.

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKOAK:

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.
Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenean bat datozela ziurtatzeko.
Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaieketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-egunetan epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

-(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Legezko ordezkariaren sinadura*

* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoia

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.